



UDALEKO MENDI ETA LOREZAINZAKO BRIGADEK BEREN LANETAN ATERATAKO ETA BOTATZEKO DEN EGURRA EMATEKO BALDINTZAK

1.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da udalak 2026. eta 2027. urteetan bere mendi, baso, parke edo lorategietako lanetan sortu(ko) duen egurra doan ematea.

Une bakoitzean emateko dagoen egur-kantitatearen arabera, loteak egingo dira eta zozketatik ateratako lehentasunaren arabera eskainiko dira.

2.- Izaera eta baldintzak

Udalak inausketa-lanak egin eta/edo zuhaitzak mozten dituen erabakiko du egurra ematen duen edo ez, eta ematea erabakiko balu, emango die **doan** interesa azaldu duten herritarrei, zozketatik ateratako lehentasunaren arabera.

Horretarako, egurra doan jasotzeko interesa izan dezaketen herritarren informazioa jasoko du udalak, deialdi honen barruan eskaera aurkeztu dutenak direla ulertuko delarik.

Jaso nahi duten egurra garraiatzea eta horretarako egin beharreko mozketak adjudikazio hartzailearen kontura izango dira, eta bere ardurapean, bere bitartekoekin eta behar diren segurtasun-bitartekoekin erretiratuko dituzte. Beraien ardura izango da, halaber, eragin ditzaketen kalteei erantzutea, konponketen edo konpontzeko eragindako gastuen kargu hartuaz.

Udalak ez du inolako parte-hartzerik hartuko lan hauetan eta gunetatik bertan lagatako moduan jasoko du egurra adjudikazio hartzaile bakoitzak, eta garraiorako edozein mozketaren premiarik izango balu hori ere bere kontura izanik.

Ezinbestekoa izango da adjudikatu zaien egurra eta bakarrik hori hartzea, egurra emandako epean jasotzea eta, erretiratu ostean, gunea modu egokian uztea.

Egurra ezin izango da saldu, laga, trukatu edo etekin ekonomikoa lortzeko erabili. Baldintzak ez betetzeak adjudikazioa galtzea eta hurrengo deialdietan parte hartzeko eskubidea galtzea ekar dezake. Adjudikaziodunak Udalari edo hirugarrenei eragindako kalteengatik erantzun beharko du.

3- Pertsona edo entitate eskatzaileak.

Eskaera aurkeztu ahal izango dute Bergaran erroldatutako pertsona fisikoak, eta baita irabazi asmorik ez izan eta Bergaran egoitza duten pertsona juridikoak ere.

Eskaera aurkezten duten pertsona fisiko zein juridikoak Bergarako Udalarekiko betebeharretan egunean egotea ezinbestekoa izango da. Udalak ofizioz egiaztatuko du baldintza hau betetzen dela.

Lehentasuna izango dute zozketan pertsona fisikoak.

4- Eskaerak.

Interesa duten pertsonak bere eskaera aurkeztu beharko dute derrigorrez plegu honi eranstean inprimakia erabilia (F0169).

Eskaera horrekin batera, honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- Eskatzailearen identifikazio-agiria (IFZ, NAN, AIZ- Atzeritarren identifikazio zenbakia, pasaporte).
- Eskaera pertsona juridiko batek egiten badu, elkartearen Estatutuak edo beste edozein dokumentu egiaztatzen dutenak ez duela irabazi asmorik.
- Interesa duen pertsonaren ordezkaritza beste pertsona batek egiten badu eskaera ordezkaritza inprimakia (F0136) behar bezala beteta eta sinatuta, bertan zehazten den dokumentazioarekin batera.

Eskaera aurkeztu hutsak dakar plegu honetan jasotako baldintzen onarpena.

5- Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

Eskaerak Bergarako Erregistro Orokorrean, udaletxeko B@Z bulegora bertaratuta –San Martin Agirre plaza, 1– edo telematikoki (udal web orriko “Tramiteak” ataletik), aurkeztu behar dira **2026ko urriaren 15etik 30era** arteko epean (biak barne).

Ezinbestekoa izango da telefono zenbaki bat eta korreo elektroniko bat ematea.

6. Adjudikazioa egiteko prozedura.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, udalak baieztatutako du eskatzaileak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela. Halaber, ofizioz, baieztatuko du:

- Pertsona fisikoak udalerrian errolatuta daudela.
- Eskaera egin dutenek egunean daudela Bergarako udalarekiko betebeharretan.

Jarraian web orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda, eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira argitalpenean zehaztutako epean.

Erreklamazioak aztertuta zozketan parte hartzeko onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da webgunean, bertan zehaztuko da udaletxean ekitaldi publikoan burutuko den zozketaren data, lekua eta ordua.

Kontuan izanda lehentasuna dutela pertsona fisikoak lehenengo zozketa egingo da pertsona hauen artean lehentasuna zehazteko. Ondoren gauza bera egingo da pertsona juridikoekin, eta zerrenda osatu eta udaleko web orrian argitaratuko da.

Kentzeko egur loteak daudenean, zozketan ezarritako lehentasun-hurrenkera errespetatuz adjudikatuko dira.

Adjudikazio hartzaileari e-mail bitartez jakinaraziko zaio (hark emandako korreo elektronikora bidaliko da mezua). Bertan jakinaraziko zaio zein lote adjudikatzen zaion eta egurra erretiratzeko epea.

Lorezaintza eta mendiko arduraduna beraiekin harremanetan jarriko da azaltzeko nun batuko duten egurra eta zein lote zenbakia egokitu zaion.

Egurra batzeko hilabeteko epea izango dute zerrendan daudenek.

Adjudikazio-hartzaileak udalak etorkizunean egin ditzakeen ondorengo adjudikazioetarako zerrendaren bukaerara pasatuko dira.

Eskaera aurkezteak oinarri hauetan jasotako baldintzak osorik onartzea dakar, eta adjudikazioa jakinarazten denetik aurrera adjudikaziodunak bertan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Ez-betetzeak adjudikazioa galtzea eta dagozkion ondorioak ekarri ahal izango ditu.